

IDAZLEENTZAKO EGONALDIAK GETARIAN DEIALDIA

1- Deialdia:

Getariako Udalak, herriko ostalariekin batera, idazleentzako egonaldiak antolatu ditu 2024 eta 2025 urteetarako. Urte bakoitzean **3 idazleri** eskainiko zaie **sormen-egonaldi** bana egiteko aukera. Getariako Udalak herriko apartamentu, hotel eta ostatu-jabeekin lankidetzan aurkeztu du deialdi hau, euskal idazleek herrian ostatu hartu eta bertan lan egin ahal izan dezaten.

Hala, herriko turismo-baliabide zenbait idazleen zerbitzura jarriko dira, haiek euren sormen-lana kontzentratuta eta distraxiorik gabe lan egiteko aukera izan dezaten. Honakoak dira egitasmoan parte-hartzea erabaki duten ostatuak: Saiaz hotela, Epotx-etxea Landetxea, Katu kale apartamentuak, San Prudentzio hotela eta Getaria apartamentuak. 2024ko egonaldietarako deialdia da orain zabalduko dena.

2- Nork eska dezake:

Euskal idazleek (literaturgileek, kazetariak, gidoilariak...), euskarazko idatzizko sormen lan bat (fikziozkoa edo ez-fikziozkoa) garatzeko.

3- Egonaldiak:

2024

SAIAZ HOTELA (2024-03-10/2024-03-15)



Esteka:

- www.siaazgetaria.com

Zerbitzuak:

- Gosaria
- Mikrouhina
- Ontziteria erabiltzeko aukera.
- Logelan hozkailua
- Wifia

EPOTXETXEA LANDETXEA (2024-02-11/2024-02-16)



Esteka:

- www.epotx-etxea.com

Zerbitzuak:

- Apartamentu osoa

KATU-KALE APARTAMENTUAK (2024-11-17/2024-11-22)



Esteka:

- <https://katukale.eus/>

Zerbitzuak:

- Apartamentu osoa

2025

SAN PRUDENTZIO HOTELA (datak zehazteke)




Esteka:

- www.hotelsanprudentzio.com

Zerbitzuak:

- Gosaria
- Mikrouhina
- Ontziteria erabiltzeko aukera.
- Logelan hozkailua
- Wifia

GETARIA APARTAMENTUAK (datak zehazteke)



Esteka:

- www.getariapartamentuak.com

Zerbitzuak:

- Apartamentu osoa

4- Deialdira aurkezteko epea:

Interesa duten idazleek **abenduaren 31a** baino lehen aurkeztu beharko dute eskabidea. Udalak egingo dugu aurkeztutako-proiektuen arteko hautaketa eta hautaturiko idazleei 2024ko urtarrilean jakinaraziko die. Une horretatik aurrera, ostalariak jarriko dira harremanetan euren etxean ostatu hartuko duen idazlearekin.

5- Idazleen betebeharrak:

Getarian egonaldia egiten duten idazleek, beren lanaren azken emaitzan, egonaldiari aipamena egingo diete, lanaren parte bat non garatu zuten adieraziz.

Idazleak, lana kaleratzean, Getarian aurkezpen bat egitera konprometituko dira.

6- Eskatzaileek aurkeztu beharrekoa:

1. Idazleak egonaldian landuko duen **proiektuaren azalpena** eta lanaren garapen/fasea (txosten laburra: 1-2 orrialde).
2. Eskatzailearen curriculuma.
3. Idazle bakoitzak **zein egonaldi** interesatzen zaion **zehaztu** beharko du (eskabide bat baino gehiago egin daiteke, epaimahaiak erabakiko du zein idazleri egokituko zaion egonaldi bakoitza)
4. Eskabideak emailaz bidaliko dira kultura@getaria.eus helbidera, mezuaren gaian "Idazleentzako egonaldiak" jarrita.

7- Epaimahaia eta hautaketa-irizpideak:

Epaimahaia segidako lagunek osatuko dute:

- Uxue Alberdi (idazlea)
- Ekaitz Esteban (kultura zinegotzia)
- Imanol Agirre (GAROA liburu-denda)
- Maribi Aranguren (udaleko teknikaria)

Hautaketan kontuan hartuko dira:

- Proiektuaren interesa, bideragarritasuna eta kalitatea
- Egonaldien erdiak, gutxienez, emakumezko idazleentzat izatea.
- Urteko hiru egonaldietako bat 35 urtetik beherako idazle batentzat izatea (eskatzaileen artean 35 urtetik beherakorik ez balego, adin horretatik gorakoei emango litzaieke).